



BIO-HONDAKINEN BILKETA EGITEKO ATZEKO KARGAKO ETA 8M³ KAXA DUEN IBILGAILU EZ TRINKOTZAILE BATEN HORNIDURA (003-2023 esp.) EROSTEKO KONTRATUA

Hernanin, 2023ko irailaren 4an

AGERTU DIRA

Alde batetik, ENERITZ GURRUTXAGA GOGORTZA andrea, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko kudeatzailea eta NAN zka. 44145740T duena.

Bestetik, GOTXON OLMO ARCOS jauna, NAN zka. 78918200W duena, ROS ROCA S.A.U.ren orde.

ESKU HARTZEN DUTE

ENERITZ GURRUTXAGA GOGORTZA andrea, bere karguarengatik GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ren izenean; kontratuaren esleipen honetarako baimendua dagoelarik Administrazio Kontseiluak 2023ko abuztuaren 4an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

GOTXON OLMO ARCOS jaunak ROS ROCA S.A.U. enpresaren izenean eta orde; (enpresa honen helbidea Avinguda de Cervera z/g, (25.300 PK) Tàrrega(Lleida) eta IFK zka. A25014382) enpresak Jesús Huerta Ramos jn. notarioaren aurrean esleitutako botereen arabera, 2017ko abenduaren 22an eta 1615 protokolo zenbakiarekin.

Bi aldeek kontratu hau egiteko nahikoa lege-gaitasun aitortzen diote elkarri, eta horretarako,

AZALDU DUTE

Aurrekari administratiboak

Kontratazio espedientea, aurrekontua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak 2023ko apirilaren 28an egindako bilkuran onartu zituen Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak. Baldintza agiri horien kopia kontratuaren osagai gisa sartzen dira.

Administrazio Kontseiluak 2023ko abuztuaren 4an, jakin zuen ROS ROCA S.A.U. izan dela kontratu honen objektu den lizitazioaren prozeduraren amaierara iritsi den eskaintza bakarra eta honek lortutako puntuaketa. Administrazio kontseiluak ondorioz, baldintza guztiak betetzen zituela ikusita, aipatu enpresari kontratua esleitzea erabaki zuen.

Enpresa horrek hornidura eman ahal izateko errekeritutako dokumentazio guztia aurkeztu du eta jakinarazi zaionetik 10 laneguneko epean eskatzen den bermea eratu du. Bermearen zenbatekoa 7.760€.

XEDAPENAK

1.- ROS ROCA S.A.U. enpresak bio-hondakinen bilketa egiteko atzeko kargako eta 8m³ kaxa duen ibilgailu ez trinkotzaile bat hornituko dio egiteko Garbitania Zero Zabor S.M.ri, zorrotz betez



Administrazio Klausula Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian, baita kontratistaren proposamenean dauden zehaztasunak ere.

2.- Garbitania Zero Zabor S.M.k aipatu enpresari, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 5. Xedapenean zehaztutako eran eginiko eskaintzaren arabera ordainduko dio 155.200€ ibilgailuaren erosketa kontzeptuan, gehi 32.592€ %21ko BEZari dagozkionak.

3.- Kontratu honek objektu duen ibilgailua entregatzeko epea 540 egunekoa izango da.

4.- Garantia epeari dagokionez, ibilgailuak urtebeteko garantia izango du.

5.- Bi aldeak daude beharturik kontratu hau betetzera, baita Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria eta esleipendunaren proposamenean dauden zehaztasunak; eta horietan ezarri gabeko guztian, azaroaren 8ko SPKL (9/2017) ezarritakoa eta beste administrazio legeek ezarritakoa jarraituko da. Horrelakorik ezean, zuzenbide zibileko xedapenak aplikatuko dira.

Eta adostasunaren froga gisa, bi aldeek bi ale izenpetuko dituzte goian aipaturiko lekuan eta egunean.

Gotxon Olmo Arcos
ROS ROCA S.A.U.

Eneritz Gurrutxaga Gogortza
GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.